

# Denbora.



## 2 Xagu Jakintsua

Irudikoa Xagu Jakintsua da. Oso azkarra da bera, eta zure jakituria frogan jarriko duten hainbat ariketa proposatuko dizkizu. Kasu honetan, **lotu kirolari bakoitza bere kirolarekin.**




## 3 Puzzlea

Ainarari izugarri gustatzen zaizkio puzzleak. Bere urtebetze egunean gurasoek puzzle berri bat oparitu diote. **Zein da puzzlea osatzeko falta zaion pieza?**



Zure gelan edo eskolan ordulari berezi bat eduki nahi al duzu? Orduak ikasteko ere aproposa izan daiteke. Jarraitu ondorengo argibideak.




## Ordularia

### Beharrezko materiala

- Guraizeak.
- Zula gailua.
- Arkatz markagailu beltza eta gorria.
- Zinta eranskor gardena.
- 12 eranskailu borobil.
- Plastikozko 3 platera handi (2 berde eta hori bat).
- Oparitarako zinta laranja.
- Koadernatzaile bat.
- Orri eranskor gorria eta zuria.

- 1 Arkatz markagailua hartu, eta platera hori baten atzeko aldean eguzki izpiak marraztu. Guztira 12 izpi egin behar dituzu, ordu bakoitzeko izpi bat. Izpiak marraztu ostean, moztu guraizeekin.



- 2 Orri eranskor zuriaren atzean bi borobil marraztu, eta moztu. Arkatz markagailu beltzarekin bi puntu lodi marraztuko ditugu. Horiexek izango dira ordulariaren begiak. Orri eranskor gorriaren atzean, berriz, ordulariaren ahoa marraztu eta moztuko dugu.

### Egiteko modua

- 3 Eranskailu borobil bakoitzean zenbaki bat idatziko dugu, 1 zenbakitik 12 zenbakira –hauexek zehaztuko dituzte orduak–. Ia ordu guztiak arkatz markagailu beltzarekin idatziko ditugu; 3, 6, 9 eta 12 zenbakiak, berriz, gorriz.





# -pasa

Erantzunak: 2.-Berezialtu-eskalada, Olazabal-golfa, Somarriba-txirritindularitza eta Imanol Agirre-pilota. 3.-1a. 4.-b,e,c,f,a,d. 5.-ACDC, Metallica, R.E.M eta Beatles



## 4 Irudiak ordenatu

Ainhoak ilargiaren marrazkiak txukun-txukun ordenatuak zituen, baina ahizpak guztiak nahastu dizkio. **Lagundu iezaiozu irudi bakoitza orden egokian ipintzen.**



**4** Eranskailu borobilak hartu, eta eguzki izpien gainean itsatsi. Ordu bakoitzari, eta, beraz, izpi bakoitzari dagokion eranskailua itsatsi. Orduak ipini ostean, itsatsi ordulariaren begiak eta ahoa. Begien gainean bekainak marraztu arkatx markagailuarekin. Begien eta ahoaren artean ordulariaren orratzak sartzeko adina tarte utzi behar da.

**5** Platera berdea hartu, eta 10 cmko zati luzexka ebaki, ordulariaren orratzak egiteko. Kontuan hartu zatietako bat beste baino txikiagoa izan behar duela; bata orduak adierazteko, eta, bestea, minutuak. Ebakitako zatiei gezi itxura eman. Orratz bakoitzaren oinarrian zulo bat egin zula-gailuarekin.



**6** Platera berde baten erdian, eta eguzkia marraztu dugun plater horiaren erdian zulo bat egin guraizeekin. Bi zuloetatik koadernatzaile bat pasa, eta lotu bi platerak. Ordularia hormatik zintzilikatu ahal izateko, oparitarako zinta laranja hartu, eta ordulariaren atzean itsatsi zinta eranskor gardenarekin. Amaitu dugu gure ordularia!

## 5 Itzalak

Musika aditua al zara? Hizki hauek orden egokian ipintzen badituzu, **lau talde atzeritarren izenak osatuko dituzu.**

**DCAA BEASELT**

□ □ □ □

□ □ □ □ □ □

**MER METLLCAIA**

□ □ □

□ □ □ □ □ □ □ □